

EIBAR'KO LENENGO INSTITUTOA

Errepublika denporan eratu zan. Eibar'ko lenengo Institutoa. Esaten dabenez, Fernando de los Rios'ek agindutako gauza zan eta, ain zuzen, 1933'gn. urtean lortu gendun eibartarrok Instituto bat geure errian izatia.

Zein lekutan zegoan? Untzaga'n bertan, udaletxe edo ayuntamentuko areto edo saloietan. Eta orrelaxe jarraitu eban gure gerra sortu arte. Eibar'ko agintariak, itxura danez, bazeuken asmoa Instituto au leku egokiago baten antolatzeko. Iñoiz entzun izan dot beren asmoa au zala: Elgetako bidian, Untzagako kioskoakin ertz egiten, antxe sortzea egoitza berria.

IRASKALEAK

Irakasle edo profesore ez gitxi pasatu ziran Instituto'tik. Ara nik jakin izan ditudan batzuek beintzat. Zuzendari edo direktore egin eban, Luis Alvarez'ek. Jose Maria Benavente. Don Jacinto Benavente ospetsuaren illoba zanak. Elerti edo Literatura erakusten eban.

Rubio jauna Dibujo'ko maixua izan zan. Esaten dabe oso erretzalia zala. Rubio irakasle onek, zelan ez! bere ikasleak bialtzen ebazen. Gaztelu'neko estankura <<tabako rubio>> billa. Baita be oso eskiadore ona zan. Rubio jauna Trebea Ixu'tik Arrate bidean patinatzen jeixteko.

Serrano jauna Frantzez'eko irakaslia zan. Azkarraga, Elerti edo Literaturakoa. Ugarte andereñoak Matematikas ezplikutzen eban. Apraiz jaunak, berriz, Geografia.

Esan dauste lau bat emakume irakasle izan zirala gure Instituto ontan Euretatik bi asturiastarrak ziran eta oso erretzaliak, orduan gure emakumien artian gertatzen ez zan gauza.

Ziur asko, beste batzuk be izango ziran irakasle. Guk jakin aal izan doguzenak leen esandakoak dira.

Instituto'ko <<bedel>> Santi Arizmendi izan zan. Eta berakin Angel Loidi.

IKASLEAK

Institutoak iraun eban iru kurso aietan naiko ikasle pasatu ziran bertatik. Ez bakarrik Eibar'koak baita be inguru erritakoak.

Oraintsu oraindik lagun artian jardun izan gera gogoratu naiean Institutuko artatik pasatu ziran gazteak. Ezta erraza danen zerrenda edo lista egitea. Ara emen gogoratu genduzen batzuek: Elena Ventura, Arura Mendizabal. Otilia De los Toyos. Felisa Loiola, Mari Fran Gisasola, Ramón Egaña. Alberto Prieto, José María eta Luis Las Heras anaiak, Pedro María Carmen Estarta elgoibartarra, Agustin Etxeberria, Miguel

Etxeberria, María Isabel Urizar, Maritxu Arrizabalaga, José Serrano, Ernesto Vidarte, Luis Aranzeta.

Ignazia Martínez Barandiaran, gero mikelete izango zan bat, eta Jainkoak daki zenbat geiago.

Batek esaten estan lenengo urtian izango zirala 80 bat ikasle gitxi gorabera. Isasiko Frailietako ikasle batzuek be juaten ziran Institutura naiz eta gero Isasin bertan ikasi. Itxura danez, ofizialki esamiñatzeko eskubidea eukitze-alde.

Orduan an egon ziran batzuek gogoratzen dira bazirala ikasle oso azkarrak be. Beren artean aipatzen dabe Juan Atxa-orbea, elgoibartarra, eta baita be bi emakume eibartarrak: Felisa Loiola eta Aurora Mendizabal. Eta duda barik izango ziran beste asko auen antzekoak.

Onela igaro ziran Eibar'ko lenengo Institutoaren urratsak gure artean. Nahiko umilki, baiñan frutu ez gitxikin. Iru urtean bakarrik, baiñan azi ona ereiñaz. 1934'gn urteko Iraultza edo Reboluzioak adarkada gogor bat emin zetsan, baiñan ez eriotzaratu. 1936'gn urteko gerrak apurtu eban gure orduko Institutoaren bizitza.

Gero andik 31 urtera, 1967'gn urtean. Jardiñetan eraikiko zan 1933'gn urtean sortutako Isntitutoa naiz, eta orretarako lurperatu izan bear an, leendik, 1929'gn. urtetik, zegoan eskola nazionala eta <<zaarren jardiña>> izan ondoren, umetxo txikientzat moldatuta zegoan egoitza.

Orra or gogoratuta, laburki eta akatz ez gitxikin gure Eibar'ko lenengo Institutoari dagokiozen pasadiso batzuek Poztuko giñake beste batzuek be gauza auetaz idaztea, danon artean gure erriko historia aztertzen aalegindu gaitzen.

P.